

BERRIGARA

5. zenbakia JARDUN Elkarteak, Bergara 1997, ekainak 27



Lurraren eta
zeruaren artean

Kanpandorreak

MARKIEGI
autoak

Leizeaga, 1
(San Lorentzo Industri Poligonoa)
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Telefona: 76 35 09



AUKERA ON BAT DUGU ZURETZAT

Txandakako Enpresa Injinerutza



ERRAMINTA
MAKINA
INSTITUTUA

matrikula
epea
uztailaren
6ra
bitarte

Hasierako lanbide heziketa bukatu baduzu eta injinerutza ikastea zurekin bat datorrela uste baduzu... Aukera hori eskaintzen dizugu!
Orain, Euskal Herrian ere ikasi eta lan egin, biak batera egin ditzakezu

- 2. Lanbide Heziketa edo III. Modulu ikasketak egin ondoren, goi mailako ikasketak
- 3 urte txandakako heziketa batean, enpresa eta IMHaren artean
- Lan kontratua lehenengo egunetik

cesi aquitaine
poitou-charentes

Informazioa:

Erreminta Makina Institutua
San Roke auzoa, 1
Elgoibar

Tf: 943 / 74.41.32
Faxa: 943 / 74.41.53
e.mail: fundac03@sarenet.es
www.fmh.es

UGARTE

AROSZTEGIA

ALTZARIAK DEKORAZIOA

- Leiho termoakustikoak
- Ateak
- Horma armairuak
- Altzariak



San Juan, 1 (Barruti) BERGARA.
Telefona eta faxa: 76 54 91

BERRIGARA

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
☎ 76 03 97 • Faxa: 76 08 19

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.

Zuzendaria:

Eneko Azkarate

Erredakzioa:

Eduardo Mendibil

Mikel Elkoroberezibar

Maketazioa:

Inaki Iturbe

Publizitatea:

Kristina Romero

Harpidetzak:

Gorka Elortza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola

Maripe Laskurain

Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Gorka Elortza

Miguel Angel Elkoroberezibar

Alex Labaien

Komikiak:

Bittor Rodriguez

Gorka Ortega & Jon Alvarez

Alex Ugalde

Unai Azkarate

Banaketa:

Txantxangorri taldea

Tirada:

4.500 ale.

Inprimategia:

Bertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

35 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du

Z E B E R R I D A ?

ANTONIO ZABALA

Forum Cinematographe taldekoa

- Uztailaren 17rako zine emanaldi bat iragarri duzue...

- Horrela da, bai. Gabonetatik ez dugu emanaldirik antolatu eta abuztuko oporrak baino lehen filme bat ekartzea pentsatu genuen. Aukera ezberdinak aztertu ondoren, Bertrand Tavernier zinegile frantziarraren *La vida y nada mas* filmea ekartzea erabaki dugu. Uste dugu filme oso interesgarria dela; 1989koa izan arren, Estatuan ez zen 1993 urtera arte estreinatu baina filmea hainbat jaialditan izan da saritua eta *Felix* Europa mailako sarietan ere, besteak beste, aktore onenaren saria jaso zuen Philip Noiret-ek. Lehen munduko gerratean kokatuta dago eta filme antimilitarista



ta bat dela esan daiteke.

- Zenbat lagun ari zarete taldean? Dirulaguntzarik jasotzen duzue?

- Normalean 6 lagun biltzen gara noizean behin egiten ditugun batzarretan. Diruari dago-kionez, Udalak 50.000 pezetako laguntza eman digu eta prest azaldu da antolatzen ditugun ekitaldian kolaboratzeko.

"Tavernier-en 'La vida y nada mas' filmearen emanaldia izango da uztailaren 17an"

I T U R R I O N E T I K

San Martin jaietako tanborradak berpizteko proiektua

Udaleko ordezkariak, San Martin jaietan egiten diren tanborradei protagonismo haundiagoa eman nahirik, tanborraden antolaketa aritu izan direnak eta otsailean Frontoian estreinatu zen San Martinen estampa ikuskizuneko arduradunekin bildu dira ideia berriak aztertzeko. Badirudi aldaketa nagusiak San Martin eguneko haurren tanborradan izango direla; *San Martinen estampa* lanean Japonen kokatutako zatiak antzetzeko dira tanborradan. 200 haur inguruk hartuko dute parte eta hainbat talderen partaidetza ere aztertzen ari da. San Martin egunaren bezperako nagusien tanborradan ere aldaketak egon daitezke.

E S A N
D U T E

"Jose Mari Zezeagak harrিতта utzi zituen zaletuak Astelenako egun haundian.

Jakina da oso eroso sentitzen dela pilotaleku horretan baina atzo

[martitzenean] partidu borobila jokatu zuen.

Bere pelotakadek Aitor Elkoro

errebotearen kontra izan zuten askotan

eta zalegoak kalibre txikiko obus haren

hegaldia mirespen zurrumurruz

lagundu zuen. Erakustaldi bikaina

izan zen. Onena beharbada Jose Marik

seitik boleaz eroan zuen pilota.

Bazirudien buruz gain gaındituko zuela,

baina besoa sartu eta pala batekin eman

izan balio bezala, txapa gain-gainean

jo zuen.

Tantoa izango zen, duda barik, aurrean

Alustiza egon ez balitz, ia edozer

pilota eroateko gauza den pilotaria.

Elkoro ez dago bere sasoirik onenean,

eskuak trapu askorekin babestu

zituen eta ezin izan zion aurre egin

Zezeaga onenari. Jose Mari jokatzeko ikustea

benetan atsegina izan zen"

FERNANDO
BECERRIL

Kirol kazetaria
EL DIARIO VASCO

**CAMARA SELLADA**

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30
(Ikuslearen eguna).

**EL RETORNO DEL JEDI**

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.

**CARRETERA PERDIDA**

Eguena: 20:00 (Zine-kluba).

Zinea

▼▼ *Sam Cayhall* (**Gene Hackman**) heriotza zigorraren zain dago Estatu Batuetako espetxe batean eta *Adam Hall* (**Chris O'Donnell**) abokatu misteriotsuaren bisita izango du... Bere bizitzari zentzua topatu nahian, *Hall* bere familiaren historia osatzen ahaleginduko da *Cayball* bere aitonaaren laguntzaz. *Lee* (**Faye Dunaway**) *Hallen* izebak, berriz, ez du ezer jakin nahi...

▼▼ **George Lucasek** idatzitako istorioari jarraituaz, oraingoz trilojiari amaiera ematen dion hirugarren zati honetan **Richard Marquand** aritu zen zuzendari lanetan. *Han Solo* (**Harrison Ford**) eta *Leia* printzesa (**Carrie Fisher**) askatu ondoren, *Luke Skywalker* (**Mark Hamill**) *Jodarekin* elkartuko da Jedi zaldun bihurtu eta *Darth Vader* maltzurra menperatu ahal izateko...

▼▼ *Corazon salvaje* filmearen arrakastaren ondoren, **Barry Gifford** idazlea eta **David Lynch** (*Terciopelo azul*, *Twin Peaks*) zuzendaria elkarlanean aritu dira oraingoan ere. Bere estilo bereziarekin, **Lynchek** hiltzaile eskinofreniko baten gora-beherak azaltzen dizkigu. **Patricia Arquette**, **Bill Pullman** eta **Balthazar Getty** aktoreekin.

Deiak

▼ **Erakusketa.** Ion Andoni Urisabel margolariaren erakusketa Kultur Etxeko erakustokian domekara arte ikusgai, gaur 6etatik 9etara eta zapatu eta domekan 12etatik ordu bietara eta 6etatik 8etara.

▼ **Benita Gallastegi** bergararren oleo erakusketa Nahikarin.

▼ **1923an** jaiotakoen bazkaria uztailaren 12an. Eguerdiko ordu batean meza izango da Sierbetan, ordu bietan argazki oroigarria aterako da eta jarraian bazkaria Antxonin. Interesatuak Antxonin jaso dezakete txartela (2.000 pezeta); emakumezkoak ere joan daitezke.

▼ **Bertso afaria** gaur, eguakitza, 21:30etan Antzuolako Olalde elkartean, Jexux Mari Irazu eta Jon Sarasuarekin.

Ogia

▼ **Domeka 29:** Mizpildi.

FARMAZIAK

- ▼ **Eguakitza 27:** Puy.
- ▼ **Zapatua 28:** Guallar.
- ▼ **Domeka 29:** Estella.
- ▼ **Astelehena 30:** Mozos.
- ▼ **Martitzena 1:** Guallar.
- ▼ **Eguaztena 2:** Estella.
- ▼ **Eguena 3:** Mozos.

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA

- Apainketarako eta industriarako pinturak
- Paper margotuak
- Mokatak eta tapizatuak

Carmen Garate

Plastikoak orokorrean. Oinetakoak.
Opari gaiak. Jostailuak. Zumea...

Bidekurutzeta ☎ 76 13 23

Gari, eguzki berritan


Hertzainak taldeko abeslari izandakoa Jam aretoan gaur

“Eguzki berritan zaude” bere azken diskoa aurkeztuko du gaur Gari legezpiarrak Jam aretoan eta Dantzut taldea telonero modura arituko da. Gari Hertzainak taldeko abeslari ohia oso gustora dago bere lan berriekin. Sarrerak 1.000 eta 1.200 pezetan (takilan) jarriko dira salgai.

- Zein diferentzia dago kaleratu berri den diskoa eta aurrekoaren artean?

- Nahiko diferentzia daude. Soinu konpaktoagoa eta homogeenagoa atera zaigula esango nuke eta sonoridade aldetik disko hobea da hau. Berriz grabatu dugu, Aitor Ariño izan da produktorea eta letretan Ion Maia, Igor Elorza eta Asier Serranok kolaboratu dute. Mikel Lasaren poemak ere erabili ditut eta izenburua, hain zuzen ere, bere olerki batetik aterata dago. Portada, berriz, Sabino Egañak egin du eta kantuetan Roberto Moso (Zarama), Iosu Zabala eta Bingen Mendizabal (Hertzainak) eta Karlos Mahomak (RIP) ere kolaboratu dute.

- Jendeak Hertzainak



Garik bere bigarren diskoa aurkeztuko du Jam aretoan.

taldearekin identikatzen zaitu. Orain egiten duzunak badu zerikusirik Hertzainak-en musikarekin?

- Batere ez, argi eta garbi daukat. Normala da 11 urtean Hertzainak-eko abeslaria izan ondoren jendeak oraindik ere hori gogoraraztea, baina ez zait gaziki iruditzen.

- Bergaran Hertzainak-en zuzeneko diskoa grabatu zenuen Txibiston, 1991n...

- Bai, baina ez daukat oroitzapen onik. Erantzunkizun haundia izan zen hura guretzat eta, egia esan, ez genuen oso ondo pentsatu disko haren grabaketa. Bi egunetan grabatu behar izan genuen,

“Ingurukoa naizenez, lagunak eta ezagunak etortzea espero dut; ondo pasatuko dugu”

sekulako lana izan zen eta ez ginen gustora geratu.

- Zelako emanaldia izango da gaurkoa?

- Azken diskoko kantak aurkeztuko ditugu eta, era berean, lehen diskoko kanten aukeraketa bat. Aurreko disko horretako hainbat kanten bertsioak joko ditugu. Bestalde, Ion Maia eta Igor Elorza bertsolariak ziurrenik abesten arituko dira.

- Fran Iturbe kitarrajole bergararra ere zurekin ari da...

- Fran aspalditik ezaiztzen dut. Gaztetan bera Bergarako talde batean ari zen eta nik Legazpiko beste talde batekin jotzen nuenez, betidanik izan dugu harremana. Lehen diskorako deitu nion eta oraingoan ere gurekin ari da. Bigarren disko honean “Batzutan” izeneko kanta bion artean landu dugu. Oso gustora ari naiz Franekin batera jotzen. Bergaran joteko gogo haundiarekin nago, ingurukoa naizelako eta talde guztia diskoarekin oso gustora ari garelako. Lagunak eta ezagunak etorriko direla pentsatzen dut eta jendea hurbiltzen bada ondo pasatuko dugu.



**Matxiategi
Elektragintza
C.B.**

**ELEKTRIZITATE
MATERIALEN
SALMENTA ETA
INSTALAKUNTZA**

**Fleming Dokorea, 5
☎ 76 19 94**

LARREA

TABERNA

**Kale Barren, 17
ANTZUOLA**

Algodonera eta Tavesako grebaen balorazioa

Martxoaren 17an ELA, CCOO, LAB eta UGT sindikatuok agiri baten bidez Tavexeko zuzendaritzari honako hau jakinarazi genion: beraien lehen proposamen negoziatzailea nabarmen aldatu ezean, martxoaren 22an greba mugagabe batean sartuko ginela. Laurogeita zazpi egun greban egin ditugu bada, eta lortutako emaitzak jasan behar izandako sakrifizioekin konparatuz nahiko murrizkak izan direla iruditzen zaigu, edo beste era batera esanda, LABetik uste dugu hain esne gutxirako ez genuela halako pittarrik behar; lehen momentutik langileen batzarrak eginez hasita egongo bagina ezberdintasunak eztaba/datu eta erabakitzeko, ziur gaude 5,25a lortzeko ez zirela beharrezko izango hainbeste egun greban.

Baina ELAkoek, lehenik oztopatu egin digute langileen batzar orokorrak egitea, eta azkenean ohartu direnean egiten ari zirena zentzugabekeria bat zela, batzarrera joan bai, baina ez dituzte kontutan hartzen hango erabakiak, eta hori gutxi izango balitz, sekulako kontraesanean erortzen dira; lehen malgutasun kontuagatik kristonak eta bi esaten ibili zirelako piketetan, eta egunetik guera, beriz, iritziz aldatzen dute ezer pasatuko ez balitz bezala.

Egia bada lehen proposamen sindikalean soldaten igoerak eta lanorduen murrizketak bakarrik ikutzen genituela, baita ere esan behar dugu prozesu negoziatzaile honetan zehar ondorengo puntu hauek kontu-

tan hartuko lituzkeen plangintzari buruz ere aritu garela: kontratazio berriak, nominaren estrukturaketa berria, malgutasuna, jubilazioak eta inbertsioak; horrela maiatzaren 13an aurreakordio batera heldu ginen zeinean 97rako 5,75 tauletan eta kontsolidatu gabeko 2,25; eta 98rako, 97ko KPla aurreikusten zuen soldata igoera adostu zen.

ELAren ustetan, gerorako plan hau langileen interesen kontrakoa zela eta, greba 33 egun luzatu behar izan genuen eta tauletan 0,5 gutxiagorekin eta paga moduan kontratuko genukeen 2,25a galduz hasi ginen lanean; eta honetaz gain, malgutasunaren gaia ere onartu behar izan genuen. Zinez uste dugu inbertsioetarako 1.300 milioirekin eta mahai gainean zeuden aukerako 65 in-korporazio berrieekin, Bergarako lantegien etorkizuna ez zela hain zalantzarria izango. Nork ziurtatzen digu orain Algodoneran zegoen haserre orokor hori ekidingo dituen kontratazio berriak egongo direnik?

Bukatzeko, uste dugu ez dugula jakin izan konflikto hau gizarteko beste sektoreetara hedatzen; lau sindikatuok ordezkaritza daukagun herriko lantegietan asanbladak eginez, horrela beste langileak ere inplikatu; bideak moztuz (inori baimenik eskatu gabe) eta horrela tentsio haundiagoa lortuz; Jabier Retegiren bisitaren aurrean ekintza erreibindikaboren bat eginez, e.a; zeren eta, modu honetan, Tavexen zuzendaritzarengan zeharka lortutako presioa eraginkorragoa izango baitzen.

LABEKO EHUNGINTZA ALORRA

Tiira biraka



UNAI AZKARTATE



Jardunen batzar orokorra

Jardun Elkarteak urteko batzar orokorra egingo du datorren eguenean, uztaialak 3, Gartzela Zaharrean arratsaldeko 7etan. Elkarteko taldeek izazko balantzea egin eta 97rako asmoen berri emango dute eta diru kontuak ere aztertuko dira. Bestalde, Zuzendaritza batzorde berria aurkeztuko da. Horrez gain, Jardunen egoitza berria, kafe antzokia eta Jarduneko eta Berrigarako bulegoak bilduko dituen lokalaren gaia ere aztertuko da. Eztabaidatuko diren gaiak interes haundikoak direnez, bazkideei batzarrera joateko deia zabaldu nahi die Jardunek.

Jubilatueta eguneko zentrua irailean zabaltzeko asmoa dago

Jubilatueta egoitzan eguneko zentrua jartzeko obrak hasi dira dagoeneko. Hasieran uste baino beranduago hasi dira, lehenengo deialdian obrak egiteko inor aurkeztu ez zelako. Bigarren deialdian, ostera, sei eskari aurkeztu ziren eta Construcciones Etxabideri adjudikatu zitzaion obra 7 milioi pezeta baino zertxobait gehiagoren truke.

Eguneko zentrua bere kabuz bizitzeko gauza ez diren eta besteren baten laguntza behar duten gaisoak egunean zehar zaintzeko zerbitzua da eta jubilatueta egoitzako telebista gela, elbarriuentzako komuna eta emakumeen ileapaindegia dauden tokian jarriko da. Bestalde, orain arte erretzaileen gela izan denari eta hall-ari ere zati bat kenduko zaie. Jubilatueta egoitzako sarrera zertxobait aldatuko da eta



Eguneko zentrua jartzeko obratan ari dira jubilatueta egoitzan.

eguneko zentroak bi sarrera izango ditu: bata, egoitzara sartzekoa eta, bestea, orain emakumeen ileapaindegia dagoen leihotako batetik egingo dena. Orain biltegia dagoen tokian pelukeria mistoa jarriko da eta biltegia, berriz, gaur egun gizonen ileapaindegia eta mantenimendu tailerra dauden tokian.

Obrak bi hilabete baino lehen amaituko dira eta eguneko zentrua irailean zabalduko da seguru. Bertan bizpauru lagunek lan egingo dute eta 10-15 gaisorentzako lekua izango da. Preziorik oraindik ez da zehaztu, baina laister egingo den pleno batean onartuko dira.

HILDAKOAK

Imanol Lazkano Iñarra

Ekainak 19, 62 urte.

Esteban Uriarte Larringan

Ekainak 21, 58 urte.

Eusebio Mujika Unamuno

Ekainak 22, 83 urte.

JAIOTAKOAK

Nerea Larrañaga Arregi

Ekainak 16.

Alexander Alferrez Marquez

Ekainak 17.

Izarra Berasategi Oianguren

Ekainak 18.

Nerea Mujika Lopez

Ekainak 19.

Sara Gonzalez Ferreiro

Ekainak 21.

Ion Durana Aizpurua

Ekainak 22.

Basalgoko ermita berriztuko da

Basalgoko Santiago ermitan berrikuntzak egiteko sei milioi pezetatik gora bideratuko ditu Udalak. Asmoa, obrak uda honetan hastea da eta ermita kanpoaldetik berriztuko litzateke: teilatua, fatxada eta kanalizazioak. Halere, Udalak Artzapezpikutzarekin hitzarmena sinatu nahi du lehenengo,

Basalgoko ermitaz gain, San Juan, Murinondoko San Blas eta San Anton ere Udalaren izenean erregistratzeko. Herriko beste hainbat ermita bezala, aipatutako laurak elizaren izenean erregistratuta daude eta obratan hasi aurretik Udalak bere izenean jarri nahi ditu. Ondoren, ermitok behar den moduan gordetzeko konpromezua hartuko du Udalak.



PINTURAS BERGARA S.L.

• INDUSTRIARAKO PINTURAK

• APAINKETARAKO PINTURAK

• GARBIKETAK

• ERROTULOAK

Aranerreka, 32 behea BERGARA. Telefonoa: 76 10 65, faxa: 76 11 40

Musika banda Intxaurrondon

Udal Musika Bandak kontzertua eskainiko du Intxaurrondoko jaietan domekan eguerdiko 12:30etan. Aurretik, 12etan, kalejira egingo dute eta jaiei hasiera emango dien pregoia irakurriko da ondoren. Jarraian, musika bandaren emanaldia izango da. Kontzertuan zehar Alfredo Gonzalez Chirlaquek konposatu duen Intxaurrondoko martxa estreinatuko da.

Presoak Euskal Herrira

Presoak Euskal Herrira ekartzea eskatzeko Bergaran lanean diharduen taldeak, San Martzialerako Presoak Euskal Herrira kamisetak salgai jarriko ditu datorren astean. Astelehenetik eguakitzera iluntzeko 8etatik 9etara Artatse elkartean erosi ahal izango dira eta zapatuan San Martin plazan eguerdian eta iluntzean.

Esne topaketak

ENBA nekazal sindikatuak Esne Topaketak antolatu ditu Gipuzkoako 8 herritan. Esnearen kalitatea kontrolatzeko datorren urtean martxan jarriko diren neurri berriei biruz eta orain arte indarrean izan den kuota sistemari buruz jardungo dute topaketetan. Topaketak, esan bezala, Gipuzkoako 8 herritan izango dira eta Bergarakoa datorren ostiralean, uztailak 4, gaueko 09:30etan Urteagako nekazal bulegoan izango da. Bertan, Analitika Veterinariako teknikoak izango dira. ENBAk Bergara eta inguruko baserritarrei deia zabaldu die datorren ostiraleko bilerara joan daitezen.



Fly Shit taldekoek kontzertua eskainiko dute zapatuan San Martin plazan.

San Pedro jaiak ospatzeko hainbat ekitaldi antolatu ditu Bedelkarrek

Astelehehean letania igoko da San Martzialera

Bedelkarrek eskularen feria eta rock jaialdia antolatu ditu zapatu honetarako, San Pedro bezperarako. Eskularen feria zapatu goizean zehar izango da San Martin plazan, Simon Arrieta plazan eta San Pedro kalean. Zapatu goizean moztu egingo dute zirkulazioa San Pedro kalean. Eskularen ferian herriko hainbat taldek hartuko dute parte: Ana Orgazen eskolakoek, ASPACEkoek, Mizpirualde zaharren egoitzakoek, Simon Arrieta zeramika taldekoek, Angiozarko liburutegikoek, San Joxepe jubilatuen elkarteak eta Jarduneko besteak beste. Goiz guztian zehar Musika Eskolako txaranga gazteak eta Jarduneko trikitixa eskolakoek kaleak alaituko dituzte. Zapatu gauerako, berriz, rock kontzertua iragarri dute. Fly Shit berga-

rarrek eta Iskanbila arrasatearrek joko dute San Martin plazan gaueko 11:30etatik aurrera.

Bestalde, aurten San Martzialeko erromeria uztailaren 6an ospatuko bada ere, astelehen honetan, San Martzial egunean, goizeko 7:30etan letania igoko da. Ondoren, meza emango da San Martzialen eta jarraian txokolatea banatuko da. Bestalde, San Joxepe jubilatuen elkarteak ere ospatuko dute eguna. Goizeko 10etan autobusa igoko da eta eguerdiko 12:30etan meza izango da; ondoren, Jubilatuetako abesbatzak emanaldia eskainiko du eta salda, txorizoa eta ardoa banatuko dira bildutakoan artean. Ordu biak inguruan, ostera, kanpo bazkaria izango da. Egunean zehar trikitilariak arituko dira eta 18:30etan jeitsiera.

LONBIDE OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 BERGARA

Siaska

Dena zure
haurrarentzako

San Pedro, 10 ☎ 76 10 39

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bergaran bilduko dira eguastenean

Orain dela 127 urte egin zen moduan

Gipuzkoako Batzar Nagusiak Bergaran bilduko dira datorren eguastenean, orain dela 127 urte, 1870. urtean, egin zuten moduan. Esther Larrañaga Batzar Nagusieta-ko presidentarekin eta Roman Sudepe diputatu nagusiarekin batera, 51 batzarkideak eta diputatu guztiak izango dira Udaletxeko pleno aretoan. Ohizko Plenoa goizeko 11:30etan hasiko da, baina hasi aurretik batzarkideei eta diputatuei

harrera egingo zaie San Martin plazan. Ondoren, pleno aretoan Victoriano Gallastegi alkateak eta Roman Sudepe diputatu nagusiak hitz batzuk esango dituzte. Musika Eskolako Kamara Taldeak, Peñaflo-rida kontearen "Adio probintzia" eskainiko du plenoa hasi aurretik eta ondoren beste bi pieza: Miguel Gonzalez Bastidaren "Euskal prelu-dioa" eta Alfredo Gonzalez Chirla-queren "Bergarako ereserkia".

Udalekuak prest

Xipizaro ludotekak uztailean antolatzen dituen udalekuak astelehenean jarriko dira martxan. Aurten 3 urtetik 13 urtera bitarteko 329 neska-mutikok hartuko dute parte udalekuetan eta egunero, astelehenetik eguakitzera, goizeko 10etatik ordu batera bitartean izango dira. 31 begirale eta 2 koordinatzaile arituko dira. Urtero bezala, egunik ederrenetakoa San Fermin eguna izango da, uztailearen 7a. Aurten poniak, basurdekumeak eta abarrak izango dira San Martin plazan.



Selektibitatean ondo

Emaitza onak lortu dituzte aurten selektibitatea egin duten herriko ikasleek. Guztira 105 bergararrek egin dute selektibitatea eta hiruk bakarrik ez dute gainditu. Aranzadi Ikastolako eta Ipintza Institutuko ikasleek egin dituzte selektibitateko

azterketak. Aranzadi Ikastolan aurten UBI egin dutenen % 58,3k, hau da 14 ikaslek, aprobatu dute ekainean eta hamalauk gainditu dute selektibitatea. Ipintza Institutuan, berriz, % 76,7k, hau da 91 ikaslek, aprobatu du ikasturtea ekainean eta horietatik 88 lagunek gainditu dute selektibitatea.

Kalebarreneko jaiak

Antzuolako Kalebarren auzoan San Pedro jaiak ospatuko dira astebukaeran. Gaur, ostirala, arratsaldeko 07:30etan hasiko dira jaiak eta gaueko 09:30etan bertso afaria izango da Olalde elkartearen

Jon Sarasua eta Jexux Mari Irazurekin. 10:30etan, berriz, erromeria izango da Gezalaga anai-arrebekin. Zapatu goizean gimkana eta marrazki lehiaketa izango dira eta ordu batean soinu-jole gazteekin kalejira. Arratsaldeko 05:30etan pilota partiduak frontoian, 18:00etan buruhaundiak eta 21:00etan auzo afaria; ondoren, Txinparta taldeak alaitutako erromeria. Gauerdian sua izango da eta jarraian urteroko sagar dantza. Aurten Aitor Elkorori omenaldia eskainiko diote. Goizaldeko 04:30etan galtzontzilo eta kulero lasterketa eta 05:30etan berakatz zopa. Domekan, San Pedro egunean, marrazki erakusketa egongo da goizean zehar Zurrategin. Goizeko 10etan diana txistulariekin eta 11:30etan Meza Nagusia. Ondoren, salda eta txorizoa eta jarraian dantzariak. Eguerdiko ordu batean txikiteoa izango da trikitilariekin eta arratsaldeko 5:30etatik aurrera, Herri arteko Olinpiadak: Bergara, Osintxu eta Antzuola izango dira lehian.

Udal liburutegiaren ordutegi berria

Astelehenetik aurrera goizeko 8etatik eguerdiko ordu bata arte izango da zabalik udal liburutegia; beraz, arratsaldez itxita egongo da. Liburutegia abuztuan ere zabalik izango da (abuztuaren 11tik 17ra arte izan ezik) eta uztailean bezala, goizez bakarrik egongo da zabalik.

Kizkur

**ILEAPAINDEGIA
SOLARIUMA**

Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

IBARGUREN PENTSUAK

BIONA pentsuen biltegia,
BIOTER produktuak,
haziak eta bestelako nekazal produktuak

San Pedro, 3 Tfnoa: 76 23 79



Lana topatzeko zerbitzua

Langai zerbitzua Udalean eskaintzen da astean hiru egunetan

Bergarako Udaleko Gizarte Ongizate Zerbitzuak, Langai zerbitzua eskaintzen du otsailetik. Langai Eusko Jaurlaritzako Lan Sailak bultzatutako zerbitzua da, iazko urrian martxan jarri zena, eta helburu nagusia enplegua sortzeko giroa eta baldintzak hobetzea da.

Alde batetik, lan barik daudenentzat edota lan egoera hobetu edo lanez aldatu nahi duten langileentzat eta, bestetik, lana eskaini nahi duten enpresentzako zerbitzua da. Labur esateko, lan poltsa haundi bat izango litzateke eta bertan enpresen eta lan eskatzaileen datuak bilduko liriateke. INEMen antzerako zerbitzua, baina Euskal Autonomi Elkarteko esparruan.

Zerbitzuaren zeregin nagusia Euskal Autonomi Elkarteko enpresen eta lan eskatzaileen artean bitartekari lanak egitea da, hauen arteko harremana bultzatuz eta sendotuz. Doako zerbitzua da eta tratu pertsonalizatua eskaintzen die bezero guztiei, beraz, esan daiteke ez dela zerbitzu masifikatua.



Lana izan, baina beste lanen bat topatu nahi dutenentzat ere zerbitzua eskaintzen da.

Zela funtzionatzen du

Langaiko datuak Gasteizko ordenadore zentrallean gordetzen dira. Norbaitek ordenadore horretan bere datuak sartu nahi baditu, lehenengo zita eskatu beharko du Bergarako Udaleko enplegu zerbitzuan. Lan eske doanari elkarrizketa egiten zaio bere ikasketa, lan-esperientzia eta beste hainbat arlori buruzko informazioa jasotzeko. Horrekin batera, kurrikuluma entregatu beharko du lana eskatzen duenak.

Bestalde, lana eskaintzen duen enpresaren bat izanez gero, beste dokumentazio bat bete beharko du. Azken hau normalean telefonoz beteko da, enpresariei tramitazio bideak errazteko.

Ondoren, jasotako lan eskaerak eta eskaintzak ordenadore zentralera bidaliko dira. Zerrenda osatzen denean, lan eskaintza egiten duten enpresei, eskuragarri dauden pertsonen berri emango zaie, beraien kurrikulumen laburpena bidaliz. Beraz, Bergara

edo inguruko enpresaren batek langile bat kontratatu nahi badu, lan horretarako egokiak izan daitezkeen kurrikulumak bidaliko zaizkie.

Esan dugun bezala, Bergarako Udala Langaiko zentro lankidea da. Gizarte Ongizate Zerbitzuan astean hiru egunetan eskaintzen da zerbitzua: astelehena, asteazken eta ostiraletan, goizeko 9etatik ordu bata bitartean. Elkarrizketa egin aurretik telefonoz deitu behar da. Informazio gehiago 77 91 65 telefonoan jaso daiteke.

Garnish

Bitxitegia

San Pedro, 12 ☎ 76 03 57

GISASOLA BURDINAKI DENDA

"Erratzu"

San Pedro, 8

Tfnoa: 76 27 70

BERGARA

Osasuna

Haurren azala

- Zeintzuk izaten dira haur jaioberriek azalean izaten dituzten arazoak?

- Bueno, asko dira, baina gehienak arriskurik gabekoak ea kasu gehienetan oso azkar (haurra hazi ahala) edo tratamendu txikiren bitartez desagertzen dira. Baina jende asko etortzen da aipatutako arazo horientatik galdezka eta esan behar da oso arazo arruntak direla.

- Adibidez?

- Jaioberriaren aknea, esate baterako. Helduaren moduko aknea haurretan ere eman daiteke, normalean jaio ondorengo laugarren astetik aurrera. Plazentaren bitartez pasatzen diren amaren androgenoengandik ematen da eta normalean ez dauka tratamenduaren beharrik. Beste arazo bat Miliumeko kisteak dira, aurpegian eta lepoan agertzen diren bolatxo zuri batzuk (ahoa ere agertu daitezke). Azalean ematen den grasa pilaketatik ematen da arazo hau, haurraren lehendabiziko bizpahiru hilabeteetan. Tratamendurik ego-

kiena haurra xaboi azidoekin bainatzea eta ondo hidratatzea da.

Arazo hauetaz aparte, badira miliaria, dermatitis seborreikoa edo haur-oihalaren dermatitisa deritzana.

- Zer da miliaria?

- Izerdi-guruinen konduktoak ixteaagatik ematen da; izerdiaren guruina dermisen dago, azal azpian, eta haurrak jantziekin tapatzeko ohitura

“Haur jaioberriek azalean izaten dituzten arazo gehienak oso arruntak dira”



Argazkian miliariaren ondorioak ikus daitezke.



CRISTINA GARCIA

(Dermatologa)

daukagunez (nahiz eta hotza eta beroa gure moduan sentidu), efektu hori sortzen da eta aurpegiari zein gorputz-erorrari eragiten dieten lesioak sortzen dira. Baina ez dago miliaria tratatu beharrik, izerdia ebitatu eta haurra giro fresko eta siku batean edukitzearekin

nahikoa izaten da. Gehiegizko erropen erabilera saihestu beharra dago.

- Eta dermatitis seborreikoari buruz, zer esango zeniguke?

- Helduen artean ere ematen da hau, biztanlegoaren %2-5 bitarte horri eragiten dio. Gune seborreikoetan ezkatatzen den haunditutako erupzio edo negala da eta bi modutan ager daiteke; buru-azalean, haurren lehendabiziko bi asteetan (hirugarren hilabetean baita) kostra zuriska moduan edo plaka gorriak edo ezkatatsuak aurpegian edo haur-oihalaren inguruan. Dermatitis mota honek ez du hazkura sortzen eta normalean, denborarekin, desagertu egiten da. Tratamendurako, buru-azaleko kostraren kasuan, azido salizilikoa edo oliba olioia ematen da; plaka gorriskak agertzen direnean, berriz, kortikoide suabeak.

- Azkenik, haur-oihalaren dermatitisa.

- Haur-oihalaren inguruan azala haunditu egiten da kakarekin kanporatzen diren enzima batzuren erruz. Xaboi alkalinoen erabilera gehiegizkoak ere dermatitis honen agerpena dakar (xaboi azidoak erabili behar dira). Haur-oihala sarritan aldatu, ondo garbitu eta ipurdian babes-kremak ematea da onena.

Iritsi da uda! Uztailaren lean
%30-50eko beharapenak

Marga jantxidenda
 San Pedro, 20 BERGARA
 Tf.76 05 37

JAUJA KIROLAK

Irizar, 2
 ☎ 76 14 95

Kanpandorreak

Denboraren soinua

**Aspaldikoa da apaizak, kanpandorreraino heltzen zen soka bati helduz, kanpaiak saltoka jotzen zitueneko irudia. Bergaran diren kanpandorreak herriko historia-
ren lekuko izan ditugu, baina gaur egun bisitari gutxi izaten dituzte urtean zehar. Aspaldi honetan usoak bilakatu dira miradore zoragarri hauetako zaindari.**

Santa Marinako parrokiaren lehen datuak 1305 urtekoak baldin badira ere, badirudi eliza berriaren eraiketari 1542.ean ekin zitzaio-
la. Kanpandorrea, berriz, 1701 urtean amaitu zuten. Kanpandorreko lehen pisuraino igotzeko karakoleko 149 eskilara igo beharra dago. Kanpandorrea (50 metro ingurukoa) orain goitik behera andamioz inguratuta dago, datozen hiru hilabeteetan bertan egingo diren berrikuntza lanak direla eta. Kanpandorreko lehen pisuan bost kanpai daude, bi haundi eta beste hirurak txikiagoak. Goian, berriz, beste bi kanpai



Argazkian, Felipe Badiola Elosuko dorreko erlojuaren ondoan.


haundi daude eta horietako batean testu hau grabatuta dago: *"Carlos De Venero me hizo. Siendo cura don Pablo Ignacio de Urizar. 1788"*. Berga-

rako ia eliza guztietan gertatzen den moduan, kanpai gehienak Gasteizko Viuda de Murua edota Hijos de Murua enpresek mende hasieran eginak

dira eta 1949an berriztu behar izan ziren asko eta asko.

Kanpai hotsak

Era berean, Santa Marinako eta San Pedroko erlojuak ere Viuda de Murua etxearenak dira. Bi parroki nagusietan (euskal gotikokoak) laurdenak, erdiak eta orduak jotzen dira, Santa Marina-
ren kasuan egun osoan zehar eta San Pedron goizeko 8etatik gaueko 9ak arte. Bizilagunen bat hiltzen den bakoitzean agonia jotzen da, hiru hiruko hildakoa gizonetako denean eta sei banako emakumezkoak denean. Orduak erlojuak berak jotzen ditu eta agoniako doinua apaizak edo, Santa Marina gertatzen den moduan, elizako lanetan laguntzen duten sekularren esku lagatzen da. Santa Marinako erlojuak hiru esfera ditu (Katabia aldera ez da erlojurik ikusten); San Pedrokoak, aldiz, esfera bakarra. Antzinakoak izan arren, erlojuak ez dute arazo handirik ematen nahiz eta az-



Ari ✓ San Bodega

Ardoak


López Ojeda

Bodegak

Tf. 76 27 76 Faxa 76 38 52 Amillaga 25

San Martzialerako ardoa!

Era guztietako marrazki, argazki, letra eta abarrak kamisetan, sudadera edota nikietan inprimitzen ditugu,



zuri-beltzean zein koloretan. Fotokopiak koloretan. Futbol, saskibalo edota ziklismoko

kamisetetan letrak, zenbakiak edo dibujak jartzen ditugu. Publizitate artikulua: boligrafak, metxeroak, gorrak, agendak...

San Lorenzo, 7 behe. ☎ 76 50 39

Herriko kanpai gehienak Gasteizko Murua etxeak mende hasiera eginak dira. Enpresa hori duela hamar bat urte desagertu zen

ken egunotan San Pedroko erlojuan aberia bat izan den. Fidel Izagirre bertako parrokoak adierazi digunez, "doinuak jotzen duen aparailua hondatu egin zen eta erlojuak egunez jo beharrean gauez jotzen zuen. Baina konpondu da arazoa eta orain ondo dabil". Zenbaitetan erlojuak atzeratu egiten da; "eguraldiak ere zerikusia izaten du horretan; gertatu daiteke engranajea ez ajustatzea behar bezala eta haizeak eraginda penduloari gebiago kostatzea bira egitea. Horrelakoetan erlojuak orduan jarri beharra dago eta telebista edo irratiko ordua hartzen dugu erreferentzetzat. Makina bat aldiz esan digute erlojuaren sistema aldatzeko, hau konplikatuagia dela baina inork ez dio horri heldu nabi eta, momentuz, berdin jarraitzen dugu.

Helduko da erlojuak aldatzeko ordua" esan digu Fidelek. Erlojuaren doinuak badu beste berezitasun bat; orduak ematerakoan San Martin martxaren zati bat jotzen du, baina Fidelek umorez azaltzen digunez, "entzumen fina izan behar da horretaz ohartzeko. Hori jotzeko erlojuak pianoaren antzeko sistema bat erabiltzen du eta harietako bat apurtzen den bakoitzean beste nota bati dagokion hariarekin aldatu behar izaten dugu eta, beraz, gero eta gutxiago antzematen da San Martin martxa dela". San Pedroko eliza zaharra ordezkatzeko lanak 1527an hasi ziren eta kanpandorre barrokoa (1742-



Karlos Ostolaza apaiza Osintxuko kanpandorrean.

koa) Gipuzkoako altuena omen da: lehen pisuraino 104 eskilara daude (93 karakol eraoak) eta bigarren pisuraino heltzeko beste 108. Lehen pisuan bost kanpai daude eta bigarrenean beste bi, alban jadanik erabiltzen ez den kanpairik zaharrena dagoelarik, 1733. urtekoa. Bestalde, kanpandorreko goialdeko sarrerak metalezko hesi batez itxi dira usoek eragindako kalteak ebitatzeko.

Elektronikaren indarra

Elorregiko kanpandorre 1882 urtekoa da. Orain dela 15 urte, kanpandorrearen 100. urtemuga ospatzeko hainbat

berritze lan egin ziren bertan eta Felipe Altuna Elorregiko auzo alkatearen hitzetan, "kanpandorre ondo dago gaur egun, ez dauka berrikuntza beharrik". Bi kanpai daude Elorregiko elizan eta Altunak azaltzen digunez, "kanpaiak auzoko jaietan jotzen dira bakarrik, txopoa jasotzerakoan eta horrelakoetan. Orain dela 25 bat urte, abadea bertan bizitzen zen. Baina abadeak aldegin zuenetik kanpaiak jotzeko obitura galduaz joan da". Karlos Ostolaza zumaiaarrak 15 urte daramatza Bergaran apaiz lanetan eta, besteak beste, Elorregin eta Osin-



San Pedroko kanpandorra da altuena. Argazkian Izagirre parrokoa.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri, 6 ☎ 76 56 62

AZPEITXI

Aranerreka, 13 behea ☎ 76 55 00

Jatetxea



HIRU HILABETEKO LANAK

Jesus Laskurain bergarar aparejadorearen proiektuari jarraituz, Donostiako Guires enpresak egingo ditu Santa Marinako kanpandorrea berrizteko lanak. Jose Mari Garmendia Guireseko ordezkariaren kalkuluen arabera, lanak bi hilabete t' erdi barru bukatuko dituzte. Bere hitzetan, *"eliza askotan ematen den arazoa dago Santa Marinan eta gehienetan erosio arazo hauek kutsadurak eragindakoak izaten dira. Behin erosioa ematen denean urak eta izotzak kalte handia egiten diote harriari eta beharrezkoa da tratatzea. Harria konpondu, juntak ireki, rejunteatu eta garbitu egin beharko dira eta harritan urik*

ez sartzeko hidrofugazio tratamendua (impermeabilizazioaren antzekoa) emango diogu". Jos izenekoko garbiketa sistema erabiliko da harriari presio gutxien eman eta kalterik minimoena sortzeko. Era berean, liken eta goroldioen agerpena ezabatzeko herbizidak emango dituzte eta harria trinkotzeko hutsuneak zementu bereziak (mineralak), kare hila eta erreka haren arteko nahasketa bat aplikatuko da. Lanek 23 milioi t' erdi inguruko aurrekontua daukate. Guiresek, besteak beste, Miramar Jauregia, Ormaiztegiako Zumalakarregi museoa edo Bergarako Errotalde jauregi berrizte lanak egin ditu.

txun ematen du meza. Berak emandako datuen arabera, *"Osintxuko lehen bataioaren datuak 1882ko otsailaren 8koak dira eta Elorregiko lehen bataioarenak urte bereko otsailaren 20koak".*

Osintxuko kanpandorrea dauden hiru kanpaietatik bi erabiltzen dira, 1905eko meza dagoela abisatzeko eta 1912koa orduak joteko (goizeko 7etatik gaueko 10ak bitartean). Azken honetan honako inskripzioa dago: *"Siendo parroco D. Manuel Garicano. Hijos de Murua. 1912".* Hildakoen berri emateko lau bat lagun aritzen dira,

baina ez da diferentziarik egiten hildakoa gizona ala emakumea den adierazteko. Erlojua 1966koa da eta hiru esfera ditu. Karlosek azaltzen digunez, *"esferak ez daude erlojuarekin sinkronizata, sistema aldatu zenean behar den moduan jarri ez zelako, txapuza bat egin zen".* Erloju elektronikoa da Osintxuko elizakoa, Teknikronos etxekoa eta Karlosek esaten duen moduan, *"oso ondo dabil. Elektronikak ez du hutsik egiten...".*

Esan bezala, Murua etxean eginak dira kanpai eta erloju gehienak. Ostolazaren arabera, *"enpresa*

horrek ez zuen jakin izan garai berrietara egokitzen eta orain zortzi bat urte desagertu egin zen. Baina etxe serioa zen eta oso kalitate oneko lanak egiten zituen".

Pitzadurak

Elosun, hasiera batean, kanpandorrea orain sakristia dagoen lekuan zegoen eta egurrezkoa zen. Kanpaiak eguneko 24 orduetan jotzen dira eta joan zen urtean Manuel Orbea bertako sakrista hilez gero, Iñaxio Ixaungoak dauka horren ardura, hildakoren bat dagoenean, meza da-

goenean edo inguruan sua suertatzen denean ere bai. Badirudi 1800 urtearen inguruan kanpaiak askotan puskatzen zirela, izotzaren erruz gehienetan. Xabier Zubizarreta parrokoaren hitzetan, *"kanpaiak sakratuak ziren orduan eta Calaborrako gotzaiari ez zion batere graziaz egiten kanpaiak hainbestetan konpondu behar izateak. Hemen barbaroren batzuk biziko zirela pentsatuko zuen eta sakrista-auri 'tarjeta horia' atera zion, kanpaiekin kontuz ibiltzeko abisua bidali zion".* Gaur egun ere pitzatuta daude dorreko

KALEGOI, 19 ☎ 76 64 07

Tomas Gezalaga

ANTZUOLA BERGARA


• Zoruen kutxilatu eta barnizaketa •

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

ORDUTEGI BERRIA:
8.00-13.00 ETA 15.00-20.00

☎ 76 19 54 BERGARA
IRU: ☎ 79 11 71 ARRASATE




GUREN
PINTURAK

pinturak eta paperak

Irala kalea, z/g • 20570 BERGARA
Tf. eta faxa 76 33 01

kanpaiak eta ez da harritzekoa egin zireneko data kontutan izanez gero: 1875ekoa bata, 1887koa beste bat eta 1922koa hirugarren bat. Kanpaiak trenez heldu ei ziren Bartzelonatik eta Elosuraino gurdiz igo zituzten. Erlojua ez dabil batere fin aspaldian, baina Felipe Badiolak erlojuaren sekretu gehienak ezagutzen dituenek, tokatzen denean bera ibiltzen da erlojuaren barren korapilotsuak konpontzen.

Jose Luis Aperribai bergarar apaiza Elgetan ari da lanean joan zen irailetik. Era berean, Angiozarreko San Miguel parrokian meza ematen du domekero. Bere hitzetan, *"Angiozarko kanpandorrea ondo dago baina teilatua nabiko egoera txarrean dago eta konpondu egin beharko dugu"*. Kanpandorrea (XIX. mende hasierakoa) bost kanpai daude eta eguneko 24 orduak ematen dituzte. Eskuz agonia (5 kolpe emakumeen kasuan eta 7 gizakumea denean) eta hileta elizkizunaren abisua jotzen da. Azken hau meza hasi baino orduerdi lehenago hasten da eta ordua hurbildu ahala sarriago jotzen dira kanpaiak, kanpai txiki eta haundien soinua tartekatuz. Pare bat lagun aritzen dira lan horretan. Jaber Mikeoren arabera, *"3 kanpai 1837koak dira eta inskripzio hau daukate: Se*



Jose Luis Aperribai Elgetako apaizak Angiozarren ematen du meza. Argazkian, Uberako kanpandorrea.

bizo siendo mayordomo Domingo Aldecoa; begoaldera dagoen beste txiki bat 1972an apurtu zen eta Murua etxean berriztu ondoren urte bereko San Migeletan inauguratu zen eta, azkenik, iparraldera begira dagoena, hil kanpaia, kanpairik zabarrena da. Erlojuari dagokionez, aurretik zegoena Arrasateko Juan de Zugastik egin-dakoa zen, 1811n eta 1970ean Murua etxeko beste bategatik aldatu zen. Erlojuraino 65 eskilara daude, bandik gora gehiago".

Uberako San Paulo eliza badirudi 1825ekoa dela, orduan ireki baitzen kulto-leku bezala. Bertako kanpandorrea 1823ko kanpai bat dago (lehengo ermitakoa ziurrenik) eta beste bat 1919 urtean fexatuta dago. Kanpaiek eguneko 24 orduak ematen dituzte sistema elektronikoko bati esker eta Joaquin Gastesi apaizak domeketan ematen du meza.

Labegaraietan ez dago erlojurik eta kanpandorrea (1940 urte ingurukoa) bi kanpai daude bai-

na bakar bat erabiltzen da, domekako meza orduaren berri emateko. Maria Angeles Larrañagak aipatzen digunez, *"lehen eskuz jotzen zen baina teilatua konpondu zenean sistema elektrikoa jarri zen. Garai batean egunero meza izaten zen, Don Joaquin eta ondoren Don Miguel izan zirenean, baina orain ez dakigu irailetik aurrera ere zer gertatuko den asteko mezarekin... Gaur egun, abade gutxi eta bokazioa ere gero eta gutxiago..."*.

Angiozarko San Migel parrokiako hasierako erlojua 1811 urtekoa zen, baina 1970ean beste bategatik aldatu behar izan zen


MINER
ard^oak

10
urte

Miner ardoak-ek, bere 10. urteurrena dela eta, **bi laguntzako Kubarako bidaia** zozketatzen du ardo-kaxa erosleen artean. Irabazlea, 1997ko irailaren 19ko ONCEko zozketako azken lau zenbakiekin bat datorrena izango da. **Eskaerak egiteko deitu 76 01 34 telefonora. ETXERA ERAMATEN DUGU.**

Termino de Ugarte, Viña Albina,
Cordovín klaretea,
Ameztoi txakolina etabarren banatzailea.

Uda heldu dela eta, zein da udako gauzarik onena? Eta txarrena?



Juan Heis

Gauzarik onena, oporrak eta txarrena gaisotasunen bat hartu eta oporrak galtzeko arriskua. Normalean 15 bat egun kostara joateko aprobetxatzen dut.



Ascen Garcia

Hondartza, eguzkia, oporrak... Eta txarrena eguraldi kaskarra egin eta oporrak aprobetxatzerik ez izatea.



Fernando Azula

Oporrak izatea eta norberak nahi duena egiteko daukan aukera. Eta txarrena? Segituan bukatzen dela, gauza on guztien moduan.



Miriam Intxausti

Onena oporrak izatea, normalean abuztuan izaten ditut eta. Aurten ez noa kanpora, baina bestela gustatzen zait irtetzea. Ez dago alde txarrik, epoka polita da.



Ander Albisua

Udako gauzarik onena oporrak eduki eta hondartzara edo kanpora joateko aukera. Eta txarrena, tokatuz gero, abuztuan ikasi behar izatea.



Elena Muñoz

Onena hemen geratu, dirua aurreztu eta beharra dutenei laguntzea. Udari ez diot alde txarrik ikusten.



Ondo pasa San Martzialetan!

Manso Hnos. S. A.

Lambion zuri, beltz eta gorri bereziak

Amillaga, 11. 123 posta kutxa, Bergara. Tf. 76 14 48 -76 14 49





Lizarazu, gizartearen islada

Sarritan bertsolariaren antzera ibiltzen gara kazetariok. Normalean gai librean aritzen gara Berrigarako atal honetan idazten dugunok, bainanoiz behinka gaia jarrita ere jardun behar izaten dugu. Gaurkoan, aldizkaria inprentara eroateko bezpera gauean deitu didate Berrigarakoek. Inprobisaziorako astirik ez, eta horra hor emandako gaia izenburuan: Lizarazu.

Egia esan, niri bost axola Lizarazuk zer egiten duen, eta pentsatzen jarrita, bere bizitza berea denez, nahi duena egin dezala. Beharbada, lapurtarrari gauza bakarra leporatu beharko litzaioke: zintzotasunez ez jokatzea. *Euskal Herria maite dudanez hemen geratu nahi dut, Athletic-en koloreen alde egitea beti izan da ametsa niretzat, harro nago Bilbon egoteagatik* eta antzerako esaldiak iten ziren Bixenteren ahotik.

Haizeak eraman ei ditu hitzak. Kasu honetan diruak, esango nuke. Alde nabarmen handia dago berbatik ekintzara. Erraza da esatea, baina ez hain erreza egitea. Bizitzako beste arlo batzuetan ere bada makina bat adibide: hemen hizkuntza bat eta Madrilen beste bat erabiltzen duten alderdiak, aldizkari larrosetan zeharo maiteminduta agertu eta hurrengo egunean ostikoka dabilzan bikoteak, hauteskundeetako programak, kasik egunero mezetara erruki itxuran joaten den nagusia gero langileekin errukirik erakusten ez duena, eta gu geu, noizean behin kalean uso eta etxean otso izatetik libratzen ez garenok. Ez noa adibideekin jarraitzera, bestela Bixenteren errukiz jar daiteke bat baino gehiago, hura gixajoa eta antzerakoak pentsatuz. Eta kontua ere ez da hori, hura behintzat, fama txarrarekin baina poltsikoa ondo beteta joango delako. Gainontzekook, haren antzera jokatu arren baina geure mailan, gauza bat esanez eta beste bat eginez, ez dugu ez poltsikoa betetzerik lortuko. Horretarako, bizitza eta gizarte honetako arlo guztietan, primeran jokatu beharra dago.

Beñardo KORTABARRIA



Kongresua

Felipe Gonzalezek hartu duen erabakiak alderdi sozialistaren kongresua hankaz gora jarri badu ere, tamalez, ezer gutxi erakutsi du, liderraren boterea izan ezik. Badirudi "aldaketa" pertsonan datzala eta ez egitasmo politiko edota ideologikoetan.

Egia da, nola ez, politiko bakoitzak bere erueda daramala, baina baita ere botere hutsa askotan -gehienetan- helburu bihurtzen dela. Alde honetatik, Almunia berrikuntza eskasak azaldu ditu kongresuan; zerbait aipatzekotan, IUri egindako keinua. Dena den, "berritzaileen" (ezerena, Benegasek zioenez) gehiengoa ez da batere ona. Izenorde hori ez dagokie taldea osatzen dutenei.

Azken hilabeteotan ezkerreko indarrak amets gaizto batetik atera dira Europako zenbait estatutan. Blair eta Jospinen arrakastak itxaropentsuak izanik ere, ikusteko dago nora eramango gaituzten, zer aldaketa gauzatuko dituzten. Boterean izan zirenean huts gehiegi egin zituzten eta, Sami Nairrek idatzi duen bezala, hankasartzeak egiteko garaia amaitu da ezkerrentzat.

Europako hiritarrok nazkatuta gaude merkatuen eta makroekonomiaren sakralisazioaz; potrotaraino Maastrichteko adierazgailuekin, langabetuen egoera txantxetako ia izango balitz bezala. Europaren eraikuntzak aurrera darrai, baina bide okerretik, hain zuzen ere, gizarteak ahotsik ez duelako. Eta gai honi dagokionez, PSOEn kongresuak ezer gutxi azaldu du.

Iñigo URRUTIA

UDAKO IKASTAROAK 97

INGELESA / ALEMANA

- Maila guztiak.
- Egunero ordubeteko edo bi orduko klaseak..
- Goizez nahiz arratsaldez.
- Errekuperaketa klaseak.
- 6 urtetik gorako haurrentzako eta helduentzako hastapen klaseak.
- Prezioak: 14 urtera bitartekoek, 8.500 PTA hileko; gazte eta helduek, 9.500 PTA hileko.
- Matrikula barik.
- Cambridgeko azterketetarako prestaketa.

Klaseen hasiera uztailaren 1ean.

LA PUERTA AL



INFORMAZIOA:
Burdiñate, 5
Bergara
Tf. 76 30 01



J.A. MIGURA

■ **Arans-Gikoeak saria**

Arans-Gi zentruko ikasle talde bat Estatu mailan ONCE erakundeak antolatutako lehiaketa batean saritua izan da. Arans-Giko zortzi ikaslek **itsumenak jotako gorrentzako egutegi bat landu dute**, gorrek erabiltzen duten egutegiari braille itsuen hizkuntzako zeinuak gehituz. Egunak, asteak eta hilabeteak kolore eta braille hizkuntzako zeinu ezberdinekin adierazten dira disko batean. Sari modura, argazki kamara bana eta **ikastetxearendako 200.000 pezetako txkeka** jaso zuten ikasleek Udaletxeko Pleno aretoan. Argazkian, saritutako ikasleak (Iosu Arrillaga, Ibai Etxabe, Ainara eta Nagore

Ikobalzeta, Miguel Angel Martinez, Jose Javier Puga, Gaizka Urteaga eta Iñigo Vilariño), Cristino Burgoa eta Amaia Urdanpilleta Gipuzkoa eta Deba Garaiko ONCE erakundeko ordezkariak, Emilio Vea Arans-Giko direktiboa, Victoriano Gallastegi alkatea eta lana zuzendu dien Iñaki Madinabeitia irakaslearekin.

■ **Brasiletik bueltan**

Brasilen bi aste eman ondoren, **Taun-Tauneko kideak** Bergarara bueltatu berri dira. Taun-Taunekoek **Sao Paulo eta Brasiliako jaialdian** hartu dute parte eta liluraturik bueltatu dira bertan izandako esperientziak. "Makinatu" lanaren bost emanaldi eman dituzte, bi Sao Paulon eta Rio Preto, Sao Carlos eta Brasilian (argazkian) emanaldi bana, guztira 2.000 kilometro inguru egin dituztelarik. Mundu osoko taldeak izan dira aipatutako jaialdian eta ikuslegoak harrera bikaina eskeini omen die bergararrei. Horrela, Taun-Taunekoek **azaro aldean bueltatzeko gonbidapena jaso dute** eta Madrileko Gobernuari dirulaguntza eskaera egin diote dagoeneko bertara bueltatu ahal izateko. Ea suerterik dagoen...



BERGARA
MARMOLERIA

PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urte, 8 BERGARA

☎ 76 11 99 / 76 14 47. Faxa: 76 04 77

ZAPELAITZ

Taberna

Eguneko menuak
astelehenetik ostiralera

San Lorentzo, 25 BERGARA

Aldoka
Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



■ **Arantzazutik Thailandiara**

Amaia Lazkano, Udal Txistulari Bandako kidea, eta **Jabi Vicente** joan zen zapatuan ezkondu ziren **Arantzazun**. Bertan izan zirenek ezkontza ederra izan zela esan digute: Aritzetakoe abestu eta Xamatzekoe dantzan egin zuten, Udal Txistulari Bandaren laguntzarekin. Ezkondu

ondoren, bestalde, bikoteari arku ikusgarria egin zioten Xamatzeko 50 bat lagunek. Bazkaria Zelai Zabalen izan zen. Amaia eta Jabi Thailandiara joan dira ezkontza bidaiari eta uztailearen 10ean itzuliko dira.

■ **Hori suertea hori!**

Joseba Garitano antzuolar gazteak eraman zuen **Elosuko jaietan egindako zozketako saria**. Zozketan 1.455 zenbakia izan zen saritua eta Josebak jaietan izan ziren herri-kiroletako probetan lagunekin batera parte hartu ondoren, erosi



zuen saritutako boletoa. Sari modura, arkume bat, bi oilasko, ardo eta sagardo kaxa bana, bi lagunentzako Zumarragako jatetxe batean afaria, bi gazta, intxaurrak eta baserriko ogia eskuratu zituen. Xabier Zubizarretak bidalitako argazkian, **Joseba Lizarralde** Elosuko auzo alkatea, **Joseba Garitano** eta **Amaia Beristain** Elosuko Jai Batzordekoa. Afari merienda ederra egingo zuten Antzuola aldean...

Zertan dihardute ba?



Agustin Aranzabal

futbolari bergararrak denboraldi bikaina burutu du aurten Realarekin eta horrela nabarmendu dute Realajarraritzen duten hainbat egunkaritarik. Askoren iritzi Agustinek lehen mailan jokatu izan duen denboraldirik onena izan da aurtengoa. EGUNKARIAK Realeko jokalaria onena izendatu du Aranzabal, Alberto atezainarekin batera; DVko sariketan, berriz, hirugarren geratu da, Alberto eta Loren kapitainaren atzetik eta EGINeko Kiroledegin sarian, azkenik, 10.tokian sailkatu da Aranzabal. Alberto, Albistegi eta Craioveanu aurrerago geratu dira.

IGARO
 ✓ Kosmetika eta oparigaiak
 ✓ Eder gela
 ✓ Bio Solariunma
 Barrenkale, 35 Tfnoa: 76 17 27

ZUBIETA
 elektragintza
 MOTORREN BOBINAKETA
 ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
 Kruz Gallastegi, 2 behea
 ☎ 76 23 48

ARGI PLASTIC
 PVC, aluminio termikoa, egurra, poliuretanoa...
 Leihoak, atek, manparak...
 Eska ezazu aurrekontua konpromezu barik
 Erakusketa: Masterreka 14, behea BERGARA
 Tfnoa: 76 55 02 Faxa: 77 11 30

Beatriz Beistegi

Beatriz Beistegi Bedelkar, Bergarako Dendarien Elkarteko idazkaria dugu urtariletik. Gaur egun, 166 bazkide dira elkartean, 121 komertzio eta zerbitzu eta gainontzeko 44ak herriko ostalaritzan lanean dihardutenak.

- Bergarako komertzioen gauzarik onena?
- Kalitatea eta tratua.
- Zein da dendarien beharrik haundiena?
- Komertzioa pizteko aparkalekuak jarri eta kaleak hobeto argizatzea.
- Zer behar da dendari ona izateko?
- Profesional ona izatea: lana ondo ezagutzea, gustora egitea eta jendea ondo tratatzea.
- "Bezeroak beti dauka arrazoa" esaldiarekin ados?
- Inork ez dauka beti arrazoa baina gehienetan beharbada bai.
- Zuk zeuk urteko zein sasoiatan egiten duzu erosketak gehien?
- Udaberrian eta udazkenean.
- Eta zelako dendetan?
- Jantzi dendetan, batez ere.
- Zer da denda batean gehien apreziatzen duzuna?
- Produktua eta tratua.
- Beti denda berdinetara joaten



"Herriko komertzioa pizteko aparkaleku gehiago eta kaleak hobeto argizatzea falta da. Nik neuk dekorazio edo opari denda bat jarriko nuke. Gaisotasunari diot beldurra"

zara ala aldatzea nahiago?

- Aldatzea nahiago.
- Dendaria bazina, zein denda jarriko zenuke?
- Dekorazio edo opari denda bat.
- Superfizie haundien zale?
- Ez, ez zaizkit gustatzen, nahiago dut pasiatu, eskaparateak ikusi...
- Erosketak, bakarrik ala lagunduta?
- Bakarrik.
- Ordaintzeko, dirua ala kreditu txartelak nahiago?
- Diruarekin normalean.
- Zer falta zaio Bergarari?
- Giroa piztea, ekitaldi gehiago antolatzea.
- Bergarako kale bat?
- Alde zaharra.
- Hobby bat?
- Irakurtzea, bizikletan pasiatzea...
- Liburu bat?
- Los pilares de la tierra (Ken Follet).
- Filme bat?
- Secretos y mentiras.
- Negar egin duzun azken aldia?
- Ez dakit, baina egiten dut negar.
- Eta zerekin egiten duzu barre?
- Gauza askorekin, lagun txantxeekin adibidez.
- Beldurra?
- Gaisotasunari, minari.
- Zelako musika atsegin duzu?
- Erromantikoa, baladak.
- Animalia bat?
- Zaldia.
- Oporretan, nora?
- Uste dut hemen geratuko naizela.

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

BERGARA

Karrozeriak

Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA

☎ 76 12 31



LAGUN ARO

ASEGURUAK



AGENTEA-DELEGATUA

Ramon Iraegi Eguren

Ramon Maria Lili, 6 behea 20570 BERGARA (Gipuzkoa)

Telefonoak: 76 23 30 • 76 41 54 / Faxes: 76 41 54

ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera: 9.00-14.00 eta 16.00-20.00

Larunbatetan: 9.00-13.00

ETXEBIZITZA

Estudioa alokairuan Benidormen. ☎ 76 23 43.

Pisua salgai Zubiaurren (ganbararekin). ☎ 76 49 30.

Pisua eta garajea salgai San Lorentzon. ☎ 76 51 45.

Pisua salgai Masterrekan. ☎ 76 08 67.

Pisua alokairuan Laredon. ☎ 76 13 86 (gauzez).

Pabiloi industrialak alokairuan. 500 m². ☎ 76 43 37.

Pisua salgai Frontoian. 160 m². ☎ 76 24 42.

Pisua salgai Masterrekan. Berriztua. ☎ 76 08 67.

Garajea saldu edo alokatzen da Santa Marinaran. ☎ 76 47 27.

Pisua alokairuan udan Dornostian, Amara auzoan. ☎ 76 31 79.

Pisua alokairuan hartuko nuke. ☎ 909 39 47 03.

Pisua alokairuan hartuko nuke Bergaran. ☎ 76 06 16.

Etxea salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 23 84.

Apartamentua salgai Laredon. ☎ 76 44 34.

Pisua salgai Aranerrekan. ☎ 76 50 50.

Pisua salgai Barrenkalen. ☎ 76 50 97 (gauzez).

DENETARIK

Fax eta erantzungailu berriak salgai. ☎ 76 31 80.

Renault 5 kotxea (SS-O) salgai. ☎ 76 10 91 (gauzez).

Txakurkuma opari, mastin eta belgiar artzain nahasketa. ☎ 76 47 45.

Peugeot 504 kotxea (NA-T) salgai. Oso egoera onean. ☎ 76 35 09.

Renault 5 GT Turbo kotxea salgai. ☎ 76 57 87.

Kawasaki Zephir motorra (750 cc.) salgai. Egoera onean. ☎ 76 23 43.

Kawasaki GPZ motorra (400 cc.) salgai. Kilometro gutxirekin. ☎ 76 08 97.

Peugeot 205 kotxea (SS-AG) salgai. ☎ 71 61 21.

Kotxeko irrati ekipoa salgai. ☎ 76 04 40 (gauzez).

Litera bat (90 neurrikoa) salgai. ☎ 76 15 06.

Taxi plaza eskualdatuko nuke Bergaran. ☎ 76 44 04.

Midi furgoneta berria salgai. ☎ 74 27 48.

Renault 21 kotxea (SS-AF) salgai. ☎ 76 29 98.

LANA

Ingeles klaseak uztailean (goizez). ☎ 76 17 18 (Jesus).

Neska euskaldun batek orduka lan egingo luke. ☎ 76 23 41 (Itsaso).

Etzeko lanak egiten ditut. ☎ 76 32 58 (Ana).

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 23 67/76 22 90.

UBIko marrazki teknikoko maisua behar da. ☎ 765167.

Haurrak zaindu edo etzeko lanak egiteko neska eskeintzen da. ☎ 76 13 46.

Etzeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 04 57.

1. eta 2. hezkuntzako klaseak uztailean. ☎ 76 42 08.

Tabernaria lanerako gertu. ☎ 76 50 58.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 04 34.

Udan lan egingo nuke. ☎ 76 43 39 (Lorea).

Informatika, fisika eta mate klaseak ematen ditut. ☎ 7646 03.

Matematika, fisika eta kimika klaseak uztailean eta abuztuan. ☎ 76 70 40.

Irakasle bat behar da 8 eta 14 urteko bi gaztetxori egunero bi orduz klaseak emateko. ☎ 7615 76.

Matematika, fisika, kimika eta diedriko klaseak uztailean. ☎ 76 24 31.

Neska euskalduna behar da haurrak zaindu eta etzeko lanetarako. ☎ 76 29 81.

Emakume euskaldunak haurrak zaindu edo etzeko lanak egingo nituzke. ☎ 76 13 46.

%20ko beherapena
erakusketa
aldaketagatik

Rincones dekorazioa

Irala, z/g Bergara Tf. eta faxa 76 52 98

AGOITZ

Tapizdenda

San Lorentzo, 25 BERGARA
Tfnoa: 76 18 23


IZADI PILI GISASOLA

Zurradero, 2
behea.
☎ 76 58 83

Santiveri

Osasun eta Dietetikan
espezializatutako zentrua

BONOFOTOA



Iosu Aranzabal

Iosu Aranzabalek jaso du oraingo honetan BONOFOToko saria, aurrekoan egindako galdera berak asmatu duelako, eta ondorengo zozketan bere txartela atera delako. Argazkian agertzen zen plaka non dagoen galdetzen genizuen eta erantzun zuzena **San Martin plaza** zen. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Iosu Aranzabali** eman dizkiogu. Zorionak!!

Zeinek pintatu zuen San Martzialgo irudi hau?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa: _____

Saria
10.000 PTA

Moztu paper hau eta
ekarri astebete baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

A	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	ARLOTEAK OILAGORRA	18	6	15	2
2.	MONGATXURRAK	12	6	14	9
3.	MANITOU LAM	11	6	16	6
4.	EZINLEIKE	9	6	10	11
5.	XURRUPAK	8	6	13	9
6.	ANGIOZAR	6	6	12	11
7.	LA JUVE	4	6	8	12
8.	COAR	0	6	6	29

B	TALDEAK	P	J	G.A.	G.K.
1.	BILDURBAREK OPEL/LAM	12	6	17	5
2.	MATXAKATEGI	11	6	7	5
3.	A ZE FLAXA ETXAGI	9	5	11	2
4.	FACUTA	9	6	9	5
5.	OSINTXU	7	5	6	9
6.	THE KILLERS	5	6	4	8
7.	ALTOS PORNOS	4	5	6	16
8.	SHAKTALE	1	5	3	16

EMAITZAK

OSINTXU-A ZE FLAXA ETXAGI	0-0
THE KILLERS-SHAKTALE	2-0
ALTOS PORNOS-MATXAKATEGI	1-1
BILDURBAREK OPEL/LAM-FACUTA	0-0
EZINLEIKE-MANITOU LAM	0-3
LA JUVE-XURRUPAK	1-3
COAR-ARLOTEAK OILAGORRA	2-5
MONGATXURRAK-ANGIOZAR	3-1
THE KILLERS-FACUTA	0-2
MATXAKATEGI-BILDURBAREK OPEL/LAM	1-1

PARTIDUAK

Eguakitza 27

19:15: ANGIOZAR-EZINLEIKE
20:30: ARLOTEAK OILAGORRA-MONGATXURRAK

Astelehena 30

19:15: XURRUPAK-COAR
20:30: MANITOU LAM-LA JUVE

Martitzena 1

19:15: ALTOS PORNOS-SHAKTALE
20:30: OSINTXU-THE KILLERS


Eguastena 2

19:15: FACUTA-MATXAKATEGI
20:30: BILDURBAREK OPEL/LAM-A ZE FLAXA ETXAGI

Eguena 26

19:15: FINAL LAURDENAK
20:30: FINAL LAURDENAK

Jokoz kanpo



MIKEL ELKOROBARRUTIA

ARLOTEAK OILAGORRAKO ATEZAINA

ZELA DOA TXAPELKETA?

Oso ondo. Lehen postuan gaude eta ondo ari gara jokutzen.

BI PENALTI GERATZEKO ZER EGIN DUZU?

Garrantzitsuena itxoitea da eta gero zortea ere behar da.

SORPRESARIK IZAN DA TXAPELKETA?

Beste urte batzuetan bezala doa; halere, Manitu Lamek gehiago egingo zuela uste nuen.

POZIK ZAUDE TOKATUTAKO MULTZOAREKIN?

Biak berdintsuak dira.

JOKOZ KANPO ASKO EGITEN DUZUE?

Bai, gehiegi.

POZIK ZAUDE ARBITRAIEKIN?

Bai, bakoitzak ahal duena egiten du.

ARBITRATUKO ZENUKE?

Ez.

TXAPELKETA IRABAZTEKO FAVORITRIK?

Bildurbarek Opel/Lam, Mongatxurak, Manitu Lam eta gu.

TXARTELIK JASO DUZU?

Bai, hori bat.

ZERGATIK?

Baloia areatik kanpo eskurarekin ikutzeagatik.

ASKO PROTESTATZEN DUZU?

Daukadan egunaren arabera.

ZER SISTEMA ERABILTZEN DUZUE?

Hori Poperi galdetu.

GOL PUPERIEN JASO DUEN ATEZAINAREN TROFEOA JASOTZEKO ESPERANTZARIK?

Defentsak horrela jarraitzen badu, bai.

IPINTZAKO TRIBUNATIK

FUTBOL PARTIDU BAT JARRAITZEKO MODU ASKO DAUDE: BATZUEK PARTIDU GUZTIA PIPAK JATEN ETA LAGUNAREKIN BERBETAN PASATZEN DUTE, BESTE BATZUEK ARBITROARI ETA MARRAZAINARI OIHUKA ETA, AZKENIK, BESTE BATZUEK ZEHARO KONTZENTRATURIK JARRAITZEN DITUZTE FUTBOL PARTIDUAK. BESTELA, IKUSI FUTBOLZALE AMORRATU TALDE HAUEK. IZAN ERE, ARGAZKIA ATERA GENIENEAN EZ ZIREN ENTERATU ERE EGIN. HORRELAKO ZALETU ZINTZO ETA JAKINTSUEN AURREAN TALDE GUZTIEK DERRIGORREZ JOKO ONA EGIN BEHARKO LUKETE. EGITEN EZ DUTENEK, BADAHITE KRITIKA ZORROTZAK IZANGO DITUZTELA, BAINA ESATEN DEN BEZALA, KRITIKA "KONSTRUKTIBOA". HORRELA JARRAI DEZAZUELA PARTIDUEZ DISFRUTATZEN IPINTZAKO "TRIBUNAKO" FUTBOLZALEOK.



GOLEGILEAK

BERRIGARA

SARIA

6 Gol

Juan Luis Etxaniz (BILDURBAREK OPEL/LAM).

5 Gol

Igor Alberdi (MANITOU LAM).

4 Gol

Asier Alberdi (EZINLEIKE), Eneko Beistegi (ARLOTEAK OILAGORRA).

3 Gol

Harkaitz Arana (ARLOTEAK OILAGORRA), Gustavo Abajo (BILDURBAREK OPEL/LAM), Markos Alonso (OSINTXU), Gorka Davila (XURRUPAK), Jabi Ibarra (A ZE FLAXA ETXAGI), Enrike Marzana (ANGIOZAR), Gorka Aiestaran (MANITOU LAM), Iban Etxeberria (MONGATXURRAK).

2 Gol

Inigo Herreros (LA JUVE), Peli Iturrikastillo (MANITOU LAM), Miguel Arregi (EZINLEIKE), Andoni Arroio eta Xabi Zangitu (MONGATXURRAK).

Labegaraietako futbito txapelketa

Labegaraietako futbito txapelketarako izena emateko epea zabalik dago hurrengo irailaren 8ra arte. Taldearen izenarekin batera, jokalaria bakoitzaren NANaren fotokopia, eta taldearen ordezkariaren izena eta telefonoa, Deportibo edo Labegaraieta kiroldegiko tabernan laga beharko dira. Euskadiko Kutzako Lagunak elkartearen 0090033922-2 kontu zenbakian, berriz, taldearen izenean 19.000 PTA ordaindu beharko dira. Aurtengo txapelketak gehienez 48 talde izango ditu eta taldeak ordainketa egiten duten neurrian onartuko dituzte. Izena ematen duten talde guztiekin bilera egingo da irailaren 9an Errotalde kultur etxean txapelketari buruzko informazioa emateko. Izan ere, datorren urtean zorteoz irtendako 24ko bi talde izango dira eta ligasistemearekin jokatuko da txapelketa.

Karate klaseak

Udal Kirol Zerbitzuak karate klaseak antolatuta ditu uztaileko. Astelehen, martitzen eta eguakitzetan arratsaldeko 6etatik 7etara Giartzu gimnasioan emango dira klaseak eta doan izango dira. Interesadutenek, izena eman behar dute Udal Kirol Zerbitzuan.

Bergara Kirol Elkarteazuzendaritza bila


Urteko Batzar Orokorra egin zuen BKEk joan zen eguakitzean Kultur Etxean. Arratsaldeko 7etan hastekoa zen batzarra ordu erdi beranduago hasi zen jende faltagatik. 7:30etan, bigarren deialdian, eman zitzaion hasiera batzarrari, 20 lagun inguru bertan zirela.

Diru kontuak eta elkartearen sail ezberdinek urteko balantzea egin ondoren gai ordenaren punturik garrantzitsuenari heldu zioten, Zuzendaritza batzordearen aldaketa, hain zuzen ere. Izan ere, Iñigo Zaitegik zuzentzen duen batzordeak lau urte bete ditu dagoeneko eta asanblada hasi aurretik lagatzeko asmoa azaldu zuten.

Beste urtebetez jarraitzeko prest

Halere, ez zen inor agertu eta, ondorioz, BKE presidente barik dago une honetan. *"Ez dakit zer gertatuko den orain, jendea lan egiteko sartzen baldin bada, gu beste urte batez laguntzeko prest gaude. Norbaitek taldearen zuzendaritza hartu nahi baldin badu, uztailearen 5era arte hemen izango gara. Batez ere lan egiteko jendea behar da, gestioa egiteko gu prest gaude eta"* adierazi zuen Iñigo Zaitegi presidente ohiak.

Elkartea lau sailez osatuta dago eta eskubaloian, saskibaloian eta pilotan gidaritza arazorik ez baldin badago ere, futbol



Iñigo Zaitegi buru duen zuzendaritzak elkarte lagatzeko asmoa du.

saila zuzendaritza barik dago. Beheko taldeen etorkizuna ziurtatuta dago, baina lehen maila erregionaleko taldearen etorkizuna beltz samarra ikusten da, norbaitek ardurak hartzen ez baditu, behinik behin. Eskubaloiak, saskibaloiak eta pilotak orain arte moduan jarraituko dute.

Miloi erdiko defizita

Batzar Orokorrean diru kontuak ere aztertu ziren; aurtengo denboraldia 558.559 pezetako defizitarekin bukatu du BKEk. Pilota saila izan ezik, gaintzeko defizitarekin bukatu dute denboraldia. *"Agorrosingo zuloarekin diru asko galdu dugu. Arazo hori izan ez balitz aurtengo balantzea aldekoa izango zen"* adierazi zuen Zaitegik.

Kirol arloari dagokio-

nez, balantze ezberdina egin zuten sailetako arduradunek. Ramon Condek, saskibaloiko arduradunak, urtea ondo joan dela adierazi zuen eta datorren urtean talde nagusia lehen maila autonomikoan aritzeko asmoa dutela berretsi zuen. Josetxo Muniategik, eskubaloiko saileko arduradunak, berriz, aurtengo denboraldia erdizpurdikoa izan dela aipatu zuen eta Luis Mari Gutierrezek, pilota saileko buruak, urteko balantzeak ona egin zuten. Bukatzeko, Juanjo Arizmendik futboleko balantzea egin zuten eta arlo honetan ere urtea txarra izan dela azpimarratu zuen. Eguakitzeko batzarrean onartu zen bezala, datorren denboraldiari begira bazkideen kuotak ez dira igoko eta hurreko ordaindu beharreko dirua ere berdinduko da.

Futbito
NESKEN
TXAPELKETA

■ EMAITZAK

The HurricanesPower. 0-3
Potzu-Nahikari. 3-0
PWA-LTB. 6-6
Blue Star-Burdinezko. 3-5

■ PARTIDUAK

Potzu-Burdinezko Damak
Zapatua. 11:00. Miguel Altuna.
Gu Geu-PWA
Zapatua. 16:00. Miguel Altuna.
Blue Star-LTB
Domeka. 12:00. Miguel Altuna.
Power Rantxeras-Nahikari TK
Domeka. 12:00. Miguel Altuna.

■ PENALTIAK



A. Velez de Mendizabal
NAHIKARI TK

ZEIN DA TXAPELKETAKO
JOKALARIRIK ONENA?

Silvia Valor.

ETA TALDEA?

LTB.

ZER POSTUTAN GUSTATZEN
ZAIZU JOKATZEA?

Erdialdean.

LIGAKO JOKALARIRIK ONENA?

Bixente Lizarazu.

DE PEDRO ALA ALKIZA?

Alkiza.

BESTE KIROLIK EGITEN DUZU?

Ez, futbola bakarrik.

■ GOLEGILEAK

1. Silvia Valor
31 gol.
2. Uxue Lazkano
26 gol.
3. Aitziber Montaña
24 gol.

Jorge Aranes

Tenis txapeliduna

Jorge Aranes tenis monitorea, Udal Kirol Zerbitzuak antolatutako tenis txapelketa irabazi berri du. Bestalde, Udako Kirol Kanpainaren barruan, tenis ikastaroak ematen ditu Labegaraieta kiroldegian.

- Zer moduz joan da tenis txapelketa?

- Ondo, 10 lagun aritu gara eta kantxa hartzeko izan ditugun arazoak kontutan hartuta nahikoa luzatu da. Izan ere, asteburuetan futbitoagatik ezin izan dugu jokatu eta astebarruan moldatu behar izan gara. Bestela, kirol maila nahiko ona izan da.

- Zer motatako jendeak parte hartu du txapelketan?

- Denetik, gazteak eta helduak. Helburua ondo pasatzea da, baina behin txapelketa batean zaudenean irabazten saiatzen zara.

- Zela hasi zinen tenisean jokatzen?

- Txikitatik beti gustatu izan zait tenisa. Hasieran lagunekin jokatzen nuen, baina gero tenis ikastaroetan aritu naiz, asko gustatzen zaidalako. Bergaran beti izan da tenisean jokatzeko afizioa; lehen, Savin ondoan aritzen ginen marrik, sokak, sareak e.a. jarriaz. Jendeari gustatzen zaio tenisean jokatzea, baina ez da Labegaraietara joaten teniserako instalazio egokirik ez dagoelako. Diru asko gastatu barik tenis pista txukuna egin daiteke. Oñatin hori egin dute eta

beteta egoten dira tenis instalazioak.

- Udako kanpainan lagun askok eman dute izena tenisean jokatze-ko?

- Jende gutxi apuntatu da. Hastapeneko mailan 14 lagun dauzkate eta hobekuntzan, berriz, bi lagun bakarrik daude. Oraindik uda kanpainaren bigarren txanda gertatzen da eta espero dut jende gehiago animatzea.

- Tenisean jokatzen ikasteko orduan gehien kostatzen dena zer da?

- Uda kanpainan helburua oinarriko kolpeak ikatea da: eskuin kolpea, errebesa, bolea eta sakea.

Ikasteko zailena sakea da koordinazio handia behar baita.

- Bergarakoaz gain, beste txapelketaren batean parte hartu duzu?

- Bai, Arrasate, Oñati eta Eibarko txapelketetara joan izan naiz.

- Wimbledonon zeinek irabaziko du?

- Aurten nahikoa zabal da, baina bi aipatuko nituzke: Krajicek eta Kafelnikov.

- Gehien gustatzen zaizun tenislaria?

- Orain erretiratuta dago, baina niri, behintzat, McEnroe gustatu izan zait beti, oso ikusgarria zela iruditzen zait.



Bergaran tenis instalazio egokirik ez dago.

“McEnroe gustatu izan zait beti, oso ikusgarria zen bere jokoa”



Hirugarren mailara igo zuen taldea

Une txarrak bizi ditu BKEko futbol talde nagusiak, aurten mailaz jeitsi baita. Gaziak alde batera laga eta gozoak gogoratzea hobe. Aste honetako argazkia orain dela 20 bat urtekoa da, BKEko lehen futbol taldeak preferentetik 3. mailara igo zuenekoak. Jesus Mari Larrañagak zuzentzen zuen taldea eta Touring taldeari irabazi ondoren, Anaitasunarekin batera igo zen hirugarren mailara. Ligan laugarren postuan amaitu zuen, baina promozioan lehenengo geratu zen Touring taldeari Agorrosinen penaltietan irabazi zion.

Gero urte bikainak ezagutu zituen hirugarren mailan. Nork ez ditu gogoratzen Moro, Ruben, Juaristi... Beste garai batzuk ziren.

Kontuak kontu, argazkikoak dira mailaz igotzea lortu zutenak. Hona hemen hamaikakoan agertzen direnen izenak ezkerretik hasita:

Zutik: Juan Luis Arregi, Juan Cruz Irizar, "Potele" Biain, Juan Carlos Lazkano, "Txelu" Arregi eta Josean Olabarria

Markurtuta: Antxon Arazkonaga, Rafa Agiriano "Kapon", "Txiki" Lakuntza, Jose Antonio Etxeberria "Fletxa" (Athletic-eko Josebaren aita) eta Lizarralde "Txibo".

Industria
hornikuntzak



Industriaren
alde

MEMESA S.L.

Nafarroa etorbidea, 9 ARRASATE. ☎ 79 42 22 • Faxe: 79 47 89
Santa Kruz, 25 ARETXABALETA. ☎ 77 11 75 • Faxe: 77 13 08



San Antonio, 5 BERGARA ☎ 76 20 21


umelaga

JATETXEA

ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA PREZIOAN PAREKORIK EZ!!

ALZAS ELEKTRAGINTZA

Korronte alferno eta
zuzeneko makina
elektrikoen eta abiada
haundiko induzitu
konponketa eta
bobinaketa



Antigua auzoa, 3 Telefonoa: (943) 76 64 14 Faxa: (943) 76 62 99 20577 ANTZUOLA



Aprobetxatu udaldia
GIDA BAIMENA
ateratzeko

*Izena ematean
%10eko beherapena
Gazte Txartelarekin*

ARRAÑAGA

A U T O E S K O L A

Artekalea, 22 BERGARA / Tf. 76 16 63

Santa Ana ELGOIBAR / Tf. 74 10 11

JAKINA

FAGOR altzarien Bergarako banatzaile bakar



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR



Sukaldeko altzariak

JAKINA, bainugelak, zeramika eta sukaldeak:
San Lorenzo Industri Poligonoa, Amillaga, 10 behe.
Telefona: 76 03 30. Faxe: 76 02 91